



ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: EUROPAR BATASUNeko ZENBAIT ZUZENTARAURI EGOKITZEKO FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako aurreproiektua prestatu baino lehen kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) arauaren helburuak
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Europar Batasuneko zenbait zuzentarau egokitu behar dituen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei haien iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, apirilaren 23ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Europar Batasuneko zuzentarauak
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Aldundiaren zerga arauak egokitzea Europar Batasuneko Zuzenbideari.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Aldundiaren zerga arauak aldatu beharra dago.
HELBURUAK	Egokitzea Europar Batasuneko zenbait zuzentarauri.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Uste da ez dagoela beste aukera egokirik.